

Ebazpena: R3/2021
Espedientea: 37/2019

Gasteizen, 2021eko abenduaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak, Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatuta, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEAk) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean AFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen den SIEren egoitza fiskala zehaztea (37/2019 espediente-zenbakia).

I. AURREKARIAK

1.- ZAEAk 2018ko apirilaren 3an eskatu zion AFARI betebeharrekoaren egoitza Arabatik Errioxara aldatzeko, 2013ko urtarrilaren 1erako atzeraeraginezko ondoreekin. Horretarako, eskatutako aldaketa justifikatzen zuten inguruabar faktikoak jasotzen zituen nahitaezko txostena erantsi zuen.

2.- 12/2002 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 43.9 artikuluan ezarritako lau hilabeteko epean erantzunik jaso ez zenez eta 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikuluan araututakoarekin bat etorriz, gatazka aurkeztu zen hilabeteko epean, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.- 2019ko urriaren 18an, ZAEAk gatazka artxibatzea eskatu zuen, 2019ko irailaren 9an AFAREN erantzuna jaso zuelako egoitza-aldaketa onartuz.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Arbitraje Batzordeak eskumena duela, 66.Bat.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, betebeharrekoaren egoitza fiskalari buruzko gatazka ebazteko.

Bigarrena.- Auzi-jartzaileak artxibatzeko eskaera egin du prozeduraren xedea gerora galdu delako, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan aipatzen den betebeharrekoaren egoitzari buruzko desadostasuna desagertu delako.

Hirugarrena.- Nolanahi ere, auzi-jartzaileak artxibatzeko eskaera egiteak atzera egitea dakarren neurrian, onartu egin behar da, prozeduran ez delako hirugarren interesdunik pertsonatu eta ez duelako interes orokorrik edo ebatzi beharreko beste interesik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU:

1.- 37/2019 gatazka amaitutzat jotzea eta jarduketak artxibatzea.

2.- Ebazpen hau Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta zergapekoari jakinaraztea.